



Wang ZHAO | AFP

IKUSMIRA

HODEIEN ARTEAN MUNDUKO IGOGAILURIK ALTUENEAN

Kanpoaldean dagoen munduko igogailurik altuenak 326 metro ditu. Txinako Hunan probintziako Wulingyuan herrian dago kokatua, Zhangjiajiekko parke naturalean hain zuzen ere. Gizon-emakume guztien ondare izendatu zuen eremua Unescok. Igogailuaren puntu gorenetik ikusten den paisaia ederrean inspiratu zen

James Cameron zuzendaria 2009an "Avatar" pelikula egiteko. Bidaia 88 segundo besterik ez du irauten. 2015. urtean "Guinness" errekorren liburuan sartu zuten. «Topografiak horrelako igogailu bat jartzea ahalbidetzen du. Lehen teleferiko bat zegoen, baina ez zen oso praktikoa. Edukiera gutxi zuen eta turistek asko itxaron behar zuten edo oinez egin behar zuten hiru orduko bidea», esan du Liu Jiek, igogailua kudeatzen duen enpresako zuzendariak. Egunero, 8.000 bat pertsonak erabiltzen dute igogailua. Joan-etorriak 16 euro balio du. Pandemiaren ondorioz, hodeien artean amets egin nahi duten bisitarien kopurua nabarmen jaitsi da. Ainar Lertxundi